



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

ESKOLA-UNIFORMEEN ETA ESKOLA-MATERIALAREN BANAKETAN LEHIARAKO ESKUBIDEAK DUEN ERAGINA

81-SUST-2017 LEA/AVC Proiektua

Aurkibidea:

I. Auziaren egoera	1
II. Ikastetxea eragile ekonomiko gisa	5
III. Zenbait jokabideren azterketa, lehiaren ikuspegitik.....	6
1. Liburuak ikastetxean erostea	6
2. Ikastetxeak agenda jakin bat inposatu du, eta horren prezioa ikaslearen hileko kuotan sartu.....	8
3. Uniformeen banaketarekin lotutako arazoak.....	8
A. Oinarrizko jantziak erabiltzea	8
B. Ikastetxearen identifikazioa duten jantziak erabiltzea	9
4. Produktu jakin bat edo eskola-materialeko produktuen marka jakin bat (ordenagailu eramangarria, tableta eta abar) erostera behartzea eta/edo leku jakin batean erostera behartzea	18
Ondorioak.....	19
Jardunbide egokien dekalogoia.....	21

I. Auziaren egoera

1. Hezkuntzarako eskubidea zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren konkista bat da, Konstituzioan aitortuta dagoena (27. artikulua). Estatuak bermatzen du irakaskuntza benetan ematen dela; izan ere, Estatuak derrigorrezko irakaskuntza ezarri du, eta adingabe baten gurasoek berek ere ezin diezaiokete uko egin. Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen Lege Organikoak gogorarazten du hezkuntzarako eskubidea oinarrizko eskubidea dela, zeina Estatuak lehentasunezko zerbitzu publiko gisa hartzen baitute¹. Horregatik, Estatuak baliabide publikoak erabiltzen ditu herritar guztiek hezkuntzarako duten benetako eskubidea bermatzeko; horretarako ezartzen ditu hezkuntza erabat publikoa, neurri handi batean diru publikoarekin finantzaturako hezkuntza itundua eta Estatuak onartutako hezkuntza erabat

¹ Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa. BOE, 159. zenbakia, 1985eko uztailaren 4koa. BOE-A-1985-12978.



pribatua. Arauaren 4. artikuluan ezartzen da gurasoek eskubidea dutela beren seme-alabek hezkuntza jaso dezaten eta botere publikoek sortutakoak ez diren beste ikastetxe batzuk aukeratzeko.

2. Hezkuntzarako eskubidearen inguruan hainbat merkatu sortzen dira, eskubide horrekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak.

Bai ikastetxeak erabakitako uniformeak, kirol-jantziak, mantalak edo beste jantzi batzuk erabiltzeak, bai hezkuntza-prozesua behar bezala gauzatzeko ikastetxeak bere ikasleei eskatzen dizkien liburuak, libretak edo eskola-materiala, ordenagailuak, tabletak edo beste tresna batzuk erabiltzeak desadostasunak sortzen dituzte, askotan, gurasoen eta erabaki horiek hartzen dituzten pertsonen artean.

Inongo zalantzarik gabe, zilegizkoa da hainbat tresna erabiltzea irakaskuntza-prozesuan, bai eta tresna horiek duten helburua ere (hala nola ikasleen uniformetasuna, komunitate-sorrera edo, zorrotz hitz eginda, irakaskuntza-tresnen erabilera). Dena den, tresna horien erabilera edo tresna horiek eskuratzeko modua ez dira desitxuratu behar eta horren ondorioz, zenbait adingaberi ikastetxeetan sartzea eragotzi. Baloratu behar da ea ikastetxearen eskakizunak arrazoizkoak diren, lortu nahi den helburuaren arabera, eta ea tresna horiek eskuratzeko modua onuragarriena den familientzat edo, aldiz, beharrezkoak ez diren prezio-igoerak sortzen dituen, zeinak adingabeen eta haien familien interesaren aurkakoak baitira.

3. Hausnarketa horretan sartzen da Lehiarako Eskubidea, honako hauek bermatzea baitu helburu: produktuen kalitatean hobekuntzak, prezio lehiakorragoak, berrikuntza, eskaintza handiagoa eta, azkenik, hobekuntzak adingabeen eta haien familien interesetan. Kontsumitzaileak aukeratzeko duen gaitasuna babestea da kontua, gaitasun hori lorrinduta gerta ez dadin produktu jakin bat edo marka jakin bat inposatu delako haien interesen kaltetan.

4. Hainbat motatako albistek agerian jarri dute ikastetxe edo elkarte batzuen jokabideek disfuntzioak sortzen dituztela lehian eta, gainera, disfuntzio horiek produktuen prezioak arrazoirik gabe garestitzea eragiten dutela.

Egunkarietako albiste horiek ez ezik, honelako lerroburuak azaldu dira hedabideetan: «uniformeen booma Espainiako ikastetxe publikoetan» edo «ikastetxe itunduek negozioa egiten dute eskola-uniformeekin»²

² *Ikusi* «Boom de los uniformes en los colegios públicos españoles», *20 minutos*, 2011ko irailaren 19a.



«Ikastetxe batzuek jantzien prezioaren % 10etik % 15era bitarte irabazten dute eskusibotasuna enpresa bati lagatzeagatik; beste eskola batzuek, ordea, kirol-materiala jasotzen dute trukean. Erabiltzaile eta Kontsumitzaileen Federazio Independentek (FUCI) geletara itzultzeari buruzko erradiografia bat egin du irail honetan. Federazio horren txostena 200 ikastetxetik gorako datuetan oinarrituta dago, eta txosten horretatik ondorioztatzen da ikastetxe publiko batean batez besteko gastua 512 euro dela haur bakoitzeko; 774 euro, ikastetxe itundu bat aukeratzen bada; eta 1.174 euro, ikastetxea pribatua bada»³.

Halaber, gai horri buruzko kexa asko daude sare sozialetan, zeinetan, betiere iturri horiei eskain dakiekeen sinesgarritasun-maila aintzat hartuta, ikusten baita jendea haserre dagoela erabakiak partekatzen ez direlako eta horiekin batera prezio-igoerak izaten direlako:

«Nire semearen ikastetxean badago uniforme, baina orain marratxo bat aldatuko diote eta logo bat jarriko diote. Saltoki handi batzuetan saldu nahi dute eskusiboki, eta orain arte erosten genuen tokian baino kostu askoz ere handiagoa izango du».

Gauza bera esan daiteke kasu jakin batzuekin lotuta LEAn jasotako kontsulta askori buruz. Kontsultok, zeinei lehiaren sustapenez erantzuten saiatu baikara, txosten hau dute korolariorik⁴.

5. Argi dago gurasoei edo arduradunei dagokiela adingabe bat zer ikastetxetan eskolatuko den erabakitzea, oso irizpide desberdinak kontuan hartuta, zeinak batez ere zerikusia baitute hezkuntza-elementuekin eta lotuta baitaude ikastetxean ematen diren ezagutzekin edo balioekin.

Ez dirudi arrazoizkoa denik irizpideon artean aintzat hartzea ikastetxean erabiltzen diren materialek edo uniformeez izan dezaketen kostua (eta are gutxiago kostu hori nabarmen txikitu badaiteke). Elementu instrumental horien garrantzia ezin da alderatu familien erabakiak zalantzan jar ditzaketen hezkuntza-ereduarekin edo mami handiagoko beste gai batzuekin

Baldin eta ikastetxeetan gauzatutako jokabideen ondorioz familien erabakia balego hezkuntzan nagusiak ez diren gaien kostuaren mende, esan behar dugu sistemako huts baten aurrean geundeekeela, zeina gogor kritikatu baitute honezkero lehiaren defentsarako atzerriko auzitegiek.

«ikastetxez aldatzea ez da erabaki erraza; izan ere, horrek dakarren kostu ekonomikoaz gain, erabaki horrek eskatzen du ikaslea beste ikastetxe batean sartzea dagoeneko hasita dagoen **ikaste-prozesu edo hezkuntza-prozesu baten erdian**,

³ *Ikusi* «Colegios concertados hacen negocio con los uniformes escolares», *El País*, 2010eko irailaren 20a.

⁴ Ikastetxeetako jardunekin lotutako 50 kontsulta inguru jaso dira LEAn. Azken urte hauetan kontsulta gehien sorrarazi duen sektorea da. Kontsultak ikastetxeek, banatzaileek, merkaturatzaileek eta gurasoek egin dituzte. Hau da, txosten honetan aztertu diren jardun guztien eraginpean egon daitezkeen guztiek.



hezigaia berandu sartzen den prozesu batera **egokitzeak ekar ditzakeen ondorioekin»⁵**.

Ikastetxeek eragindako murrizketa posibleen eta hezkuntzarako eskubidearen artean dagoen harremana dela medio, kasu honetan ez dira aplikagarriak ezin konpara daitezkeen merkatuetan aldeztu diren moduko arrazonamenduak. Kasu horietan, zerbitzu baten erabiltzaileak ikastetxe batera edo bestera joatea erabakitzen du segun eta ezar dakizkikeen betebeharrak tangentialak bere gustukoak diren edo ez⁶.

Kasu honetan, aitzitik, kontuan hartu behar da uniformearen edo eskola-materialaren politikak ezin duela eragozpenik sortu hezkuntza-eredu batean sartzeko eta, beraz, ezin duela baldintzatu gurasoek ikastetxe bat aukeratzeko erabakia. Hezkuntzaren eremuan, hezkuntza-zerbitzua ematea da garrantzitsuena, eta ezin dute hezkuntza desnaturalizatu gaia arlo ekonomiko soilera ekartzen duten beste auzi batzuek, zeinek ahaztu egiten baitute hura nahitaezkoa den funtsezko eskubide batekin lotzen duten elementuak.

6. Argitu behar da kasu gehienetan ikastetxeek **fedea oneraz jarduten dutela** eskolako uniformearekin eta materialekin dagokienez, eta ez da uste ikastetxeen jokabideak ordenamendu juridikoa urratzen duenik edo jokabide horren ondorioz disfunczioak sor daitezkeenik merkatuan, edo jardun onuragarriagorik dagoenik ikaslearen eta haien familien interesetarako.

Litekeena da jokabide hori legez kontrakoa dela ez jakitea, baina hori ez litzateke eragozpen izango, Auzitegi Gorenak gogoratu duenez, jokabide bat eta lehia osasuntsuaren ildora birbideratu behar izateko:

«[...] nagusitasun-posizioaren abusua dela medio enpresa-jokabide bat zehatzeko erabakia, edo akordio jakin bat (LDL 1.1a) eta c) artikuluen aurkakotzat jotzekoa, **ez da akordioak berez duen helburu edo asmoaren ondorioa**, baizik eta akordioa, hala bere edukiagatik nola bere ondorioengatik, manu horien aurkakoa delako. Alegia, ez da asmo subjektiboa; ordea, kontuan hartu behar da ea akordioa edo egintza hori lehia

⁵ *Ikusi* 21/2005 Epaia, Lehia Askearen Defentsarako Txileko Santiagoko Auzitegiarena, 2005eko uztailaren 6koa. Rol C N° 59-05.

⁶ *Ikusi* Madrilgo Probintzia Auzitegiko 21. ataleko epaia, 2003ko urtarrilaren 8koa. *Ikusi* zinemetako krispeten monopolio posiblea, Madrilgo Probintzia Auzitegiak ebatzia. Kasu horretan esaten zen ezin dela fedea oneraren aurkakoa izan nork bere negozioa sustatzeko duen afana, zeinak zine-aretoak bultzatzen baitzituen zinematik kanpo saldutako krispetak ez onartzera. Esaten zen ezen zinemetan, erabakiak hartzean, ez dutela zertan kontuan hartu erabakiok hirugarrenei ekar diezazkieketen onurak edo kalteak, eta gogoratzen zen ezen kontsumitzaileak, erabakitzeko askatasuna duenez, erabaki dezakeela joatea kanpoan erositako edariak eta elikagaiak kontsumitzen uzten duen zinema batera, halakorik permititzen ez duen zinema batera joan ordez.



askearen kontrakoa den edo, beste modu batera esanda, ea objektiboki jarduna jo daitekeen zuzenbidearen aurkakotzat».⁷

7. Era berean, gogoratu behar da ezen txosten honetan adierazitakoak nahitaez erabili behar diren materialei edo arropen buruzkoak direla batez ere. «IFF Research» agentziaren 2012ko txosten batek gogoratzen duenez:

«derrigorrezkoak ez diren produktuen murrizketak ez dira hain gertagarriak eta garrantzitsuak; izan ere, gurasoak ez daude behartuta produktu horiek erostera»⁸.

8. Lehiaren Euskal Agintaritzak ohartarazi zuen uniformearen merkaturaren liberalizatu egin behar zela⁹. Bere garaian, dei egin zen jarrera protekzionistak sustatzen dituzten eta lehia askea mugatzen duten jardunak amai zitezen.

Era berean, Txileko Santiagoko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak adierazi du ezen gurasoen eta ikastetxeen artean dagoen botere-asimetria haztegi bat izan daitekeela lehiaren agintaritzek geldiarazi behar dituzten jokabideetarako:

«gerta daiteke lehiaren aurkako jardunbideak gauzatzea, hala nola neurritz kanpoko mugak ezartzea honako eskubide honi: ikastetxe bateko gurasoek eta ahaldunek libreki aukeratu ahal izatea behar dituzten eta hezkuntza-arlokoen osagarriak diren ondasun eta zerbitzuak»¹⁰.

II. Ikastetxea eragile ekonomiko gisa

9. Ikastetxe publikoa, pribatua edo itundua eragile ekonomikotzat hartzen dira Lehiarako Eskubidearen ikuspegitik¹¹.

«[...] lehiaren defentsa-eskubiderako garrantzitsua dena ez da jokabidea dagien subjektua publikoa edo pribatua izatea, baizik eta egindako jokabidearen izaera eta jokabide horren ondorio ekonomikoak».

Txosten honi dagokionez, ikastetxeek edo gurasoen elkarteek gauzatutako jardura ez da hezkuntza-eginkizunei buruzkoa; aldiz, eginkizun horiek

⁷ *Ikusi* 5301/2009 Kasazio Errekurtsoa, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako Hirugarren Atalarena, 2012ko abenduaren 13koa. 8818/2012 AGE.

⁸ *Ikusi* Report of findings by IFF RESEARCH «Supply of school uniforms», 15. or. OFT1436.

⁹ *Ikusi* «Competencia avisa de que los centros no deben reservarse la venta de los uniformes y libros», *Deia*, 2014ko irailaren 1a (azken kontsulta, 2015eko martxoaren 15ean).

¹⁰ *Ikusi* 21/2005 zenbakidun epaia, Txileko Santiagoko Lehiaren Defentsarako Auzitegiarena, 2005eko uztailaren 6koa, bederatzigarren kontuan hartuzkoa. Rol C Nº 59-05.

¹¹ *Ikusi* Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiaren osoko bilkuraren ebazpena, IMPJB 45/2012 zenbakidun espedientea, 2014ko uztailaren 14koa.



gaindituta, merkataritza-gaietan sartzen da bete-betean, eta, beraz, izaera ekonomikoa du.

«[...] marka bati eskubide eskusiboa emateak [...] zalantzarik gabe esan nahi du erreferentziatzeko merkatuan jarduera ekonomiko bat gauzatzen dela»¹².

Ikastetxea publikoa, pribatua edo itundua izateak ezin du Lehiarako Eskubidearen aplikazioa baldintzatu.

Hala ere, badu garrantzia ondorioak baloratzeari dagokionez.

10. Txosten honetan aipatzen diren printzipioen aplikazioak ikastetxe publikoei eta itunduei eragiten die batez ere. Egia da ikastetxe pribatuek ekintza-tarte handiagoa dutela diru publikorik jasotzen ez dutelako eta, beraz, beren jokabidearekin ez dutelako baldintzatu adingabeek hezkuntzarako duten eskubidea. Merkataritza-eremu batean lehiari egiten zaion murrizketa orok, baldin eragiten badio familiek nahi duten hezkuntza-ereduan sartzeko aukerari, denik eta meritu-ezik handiena hartzen du.

III. Zenbait jokabideren azterketa, lehiaren ikuspegitik

1. Liburuak ikastetxean erostea

11. Ikastetxea liburuen ohiko banaketa-kanalen **hautabidea** izatea, hasiera batean, ez da lehia askearen kontrakoa.

Batez ere bi arrazoik justifika dezakete ikastetxe batek eskola-liburuen banatzaile izateko hartutako erabakia.

Lehenengo arrazoa ikastetxeak ale kopuru handia erostean izan dezakeen erosketa-ahalmena da, horrek prezio lehiakorragoak lortzen lagunduko baitio. Zenbait administrazio-ebazpenetan adierazten da banaketa-kanal berri bat irekitzea, zeina onuragarri gerta bailiteke kontsumitzaileentzat *rappel* direlakoez baliatzen delako, ezin da zigortu lehiaren defentsaren ikuspegitik.

Horretarako, argigarria izan daiteke Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ebazpena (81/94 Errekurtsoa, gaia: Ciudad Realeko Ikastetxeak):

«Ikasleetako Gurasoen Elkarateek familiei material didaktikoen kostua murrizteko ezarritako mekanismoak, hasiera batean, eraginkorrak eta onuragarriak dira jendearen

¹² Ildo berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak enpresa kontzeptua oso termino zabaletan mugatu du historikoki, halakotzat hartu izan baitu merkatuan jarduera ekonomikoa modu autonomoan gauzatzen duen edozein eskubide-subjektu, izan pertsona fisiko nahiz juridiko, bere estatutu juridikoa gorabehera (EEJEE, 1999ko irailaren 21ekoa, C-67/96, gaia: *Albany Internacional*).



intereserako, eta ezin dira inola ere hartu enpresa-berdintasun eta -askatasuneko manuen aurkakotzat».

Irakurketaren, liburuaren eta liburutegien Legeak ematen du bigarren arrazoia; izan ere, Lege horrek muga jartzen dio testu-liburuaren prezioak libreki ezartzeari¹³. Arau horrek argi eta garbi mugatzen ditu merkatu horretan izan daitezkeen prezioen jaitsieren ondorio positiboak, eta liburu-enpresaburuaren *lobby*ei laguntzen die herritarren interesen aurka. Hala ere, 9. artikulua **prezio finkorako salbuespenak** ezartzen ditu, honako hau esaten baitu:

«Lege horretako 9. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, publikoarentzako salmenta-prezioa baino prezio txikiagoak aplikatu ahal izango dira kasu honetan: a) baldin eta azken kontsumitzaileak liburutegiak, artxiboak, museoak, **ikastetxeak**, unibertsitateak edo sortze-helburua zientifikoa edo ikerketakoa duten erakundeak edo zentroak badira, prezio finkoaren % 15erainoko deskontua».

Hau da, ikastetxeek, araubidez, % 15erainoko deskontuak aplika ditzakete gure sistema juridikoan liburuak modu ulertezinean duten prezio finkoaren gainean.

Ikastetxeak, hortaz, baldintza hobekien eskain diezazkieke ikasleei, eta familiek zentzuzki aukeratuko luketen aukera bilakatu, non eta familiek beste arrazoirik ez duten bestelako aukerak nahiago izateko.

12. Hala eta guztiz ere, liburuak ikastetxean erostera **behartzea** ez dator bat lehia askea iradokitzen duten printzipioekin.

Behartze horrek mugatu egiten du familien aukeramen askea, eta eskaintzaileek hobetzeko pizgarria galtzea edo murriztea eragiten du, eskaintzaileek badakitelako ez dagoela lehiakiderik produktu bera prezio txikiagoetan eskaini ahalko duenik.

Familiek aukera izan behar dute material bera eskuragarri daukaten saltokietara joateko eta non, zer eta zenbatean erosi askatasunez erabakitzeke.

Jardunbideok, azkenean, kalte egiten diote kontsumitzaileari, eta haren portaera ekonomikoa desitxuratzen, zeren zenbait konturen gainean hartu behar dituzten erabakiei eragiten baitiete: eskaintza edo eskaintzailea aukeratzea, ondasun edo zerbitzu jakin bat kontratatzea, bai eta, hala egokituz gero, kontratazio hori egiteko modua eta baldintzak, eta prezioaren pague eta ordainketa-modua (Lehia Desleialari buruzko Legearen 4. artikulua)¹⁴.

¹³ Irakurketaren, liburuaren eta liburutegien ekainaren 22ko 10/2007 Legea. BOE, 150. zenbakia, 2007/06/23.

¹⁴ 3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa (urtarrilaren 11ko BOE, 10. zk.). Hauen bidez aldatu da: 3/2014 Legea, martxoaren 27koa (Erref. BOE-A-2014-3329); 29/2009 Legea, abenduaren 30ekoa (Erref. BOE-A-2009-21162); 14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa (Erref. BOE-A-2003-21187); 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa (Erref. BOE-A-2000-323); 52/1999 Legea, abenduaren 28koa (Erref. BOE-A-1999-24706).



2. Ikastetxeak agenda jakin bat inposatu du, eta horren prezioa ikaslearen hileko kuotan sartu

13. Batzuetan, ikastetxeek erabakitzen dute eskola-agenda bat jartzea ikasleen eskura.

Jardun hori proportzionaltasunetik aztertu behar da, zehaztuta gera dadin ea baden heziketari lotutako arrazoi bat zeinak, batez ere adin jakin batzuetan, agenda guztiak berdin-berdinak izatea eskatzen baitu, edota, aitzitik, ea arrazoiagoa den ikasleei egokitzat hartzen duten agenda erosteko aukera ematea, irakasle-taldeak jarritako ezinbesteko ezaugarriak kontuan hartuta.

Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu behar da inposatutako agendaren prezioak arrazoizkoak izatea eta neurri horrek zer eragin duen material mota hori saltzen duten erakundeetan.

LEAk bi urtean jarraian kekek jaso ditu agenda mota hori saltzen duten liburu-denden aldetik, zeren ikastetxeek materiala ikasleei «oparitzea» erabaki baitute eta ez baitiete aukerarik ematen material hori baldintza onenetan eskainiz lehiatzeko.

Ikastetxeek jakin behar dute ezen zenbait eskaintza eskatuta eta horien arteko lehia exijituta beti lortuko dituztela erabilitako materialaren kalitate eta prezio hobek.

3. Uniformeen banaketarekin lotutako arazoak

14. Ikastetxe bakoitzak uniformea edo beste jantzi batzuk erabil daitezzen inposatzeko erabakia banaka hartzen da ikastetxe bakoitzean, enpresa-askatasunaren esparruan¹⁵.

Ikastetxeak bide hori aukeratzen badu, hiru aukera daude:

- Behar adinako zehaztasunez definitzea ikasleek hainbat zeregin eta unetan erabili behar dituzten oinarritzko jantzi batzuk.
- Oinarritzko jantzi batzuk pertsonalizatzea, nahi izanez gero armari bat, logo bat edo ikastetxeak zehaztutako izen bat gehituz.
- Jantzi batzuk sortzea pertsonalizazioa gehituta, uniforme gisa erosiko direnak zuzenean.

A. Oinarritzko jantziak erabiltzea

15. Baldin eta ikastetxeak erabakitzen badu erabiltzea jantzi jakin batzuk zeinek ez baitute ikastetxea identifikatzen, definizio egokia eta osoa egin behar da aukeratu diren ezaugarriei buruz (kolorea, itxura, materiala, mota...).

¹⁵ Ildo horretan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren ebazpena, S/0394/11 espedientea, gaia: *Ikastetxeetako uniformeak*, 2012ko abuztuaren 16koa, zuzenbideko bigarren oinarria.



Zehaztasun handiagoa egonda, ikasleak uniformatzeko helburua lortuko da; erosteko moduetan askatasun handiagoa egonda, familiek baldintza onenetan eskuratu ahal izango dituzte produktuak.

«IFF Research» agentziak egindako azterlan batek erakusten du prezioen dibergentzia nabarmen hori.

«Bigarren hezkuntzari dagokion jertse baten prezioa, txikizkari bakar batekin egindako eskusibotasun-akordio batetik eratorria, 12 dolar ingurukoa zen. Supermerkatu bateko prezio adierazgarri bat 5 eurokoa zen. Bigarren hezkuntzako gonon kasuan, zifra baliokideak 15,40 dolarretik 5 dolarrera bitartekoak ziren, hurrenez hurren».

B. Ikastetxearen identifikazioa duten jantziak erabiltzea

16. Kasu honetan, identifikatzeko dauden bi aukerei buruz ari gara: oinarrizko jantziei erants dakizkiekeen logoen bitartez edo dagoeneko identifikatuta dauden uniformeen bidez. Bi kasutan, ohikoa da, nahiz eta modu diferentean, ikastetxeak bere marka propioaren erregistro bat erabiltzea.

a. Ikastetxe bati dagokion marka bat erregistratzea

17. Logoak, armarriak, intsigniak, diseinuak edo jantzi-motak... markarregistroaren edo babes industrialaren xede izan daitezke.

Ikastetxeek beren logoekin marka erregistratuak sortzeko jardunbideak bat datoz jabetza industrialaren arauak babestutako eskubide baten gauzapean legitimoarekin, zeinak erabilera eskusiborako aukera ematen du, baina ez obligazioa, bai eta aipatutako elementu identifikagarriak nola erabiliko diren erabakitzeke aukera ere.

Baliabide horiek erabiltzeak eragozten du edozein operadorek ikastetxearen identitatearen erabilera komertziala egin ahal izatea baimenik gabe, edo identitate-elementuak desegoki erabiltzea.

18. Eskola-jantziei dagokien marka zeinu bereizgarria da, eta hirugarrenek hura baimenik gabe erabili ahal izatea saihestu baino ez du egiten. Beraz, salerosketan normalean bilatzen den baino askoz ere erabilera mugatuagoa du: marka bateko produktu bat beste marketatik bereiztea eta salerosketan segurtasuna ematea, jakinik zein diren marka bakoitzak berekin dakartzan eta besteetatik bereizten duten ezaugarriak. Ikastetxeen helburua merkatuan jardutea ez denez, helburu horiek guztiak ezin zaizkio ikastetxe batek erregistratutako marka bati aplikatu¹⁶.

¹⁶ BOCOS, Marcos, *La ley de marcas: estudio de la nueva ley de marcas, su reglamento y su aplicación práctica en la empresa*, Servidoc, 2003.



Arrazoi hori dela medio, lehiaren agintaritzek ohartarazpen asko egin dituzte honako honi buruz: patenteek eta markak ez lituzkete babestu behar jantzi jakin batzuk erostera behartzen dituzten ikastetxeak.

'Malta Competition and Consumer Affairs Authority' delakoak behin eta berriz adierazi du ez daukala zentzurik markak babestea eskola-uniformeen eremuan, dioela:

«Eskola-uniformeen diseinuek ahalik eta sinpleenak izan beharko lukete, eta saihestu beharko lituzkete beharrezkoa ez den edozein diseinu katramilatsu edo ohikoak ez diren koloreak, eredu konplikatuak, ikastetxearen izenarekin egindako brodatuak eta azpildurak. Eskolaren identitate berezia mantentzeko, eskolaren bereizgarriak bereiz sal litezke, adibidez».

Hau da, kasu jakin bakoitzean baloratu behar da ea legitimoa den ikastetxeak jabetza industrialaren eskubideez dagien erabilera. **XX**

b. Indibidualizatutako edo marka erregistratu bidez babestutako elementuak banatzeko moduak

- Matrikulatutako edo onartutako ikasleekiko lotura

19. Baldin eta erregistratutakoak oinarrizko jantzietan itsatsi beharreko logoak edo adierazgarriak badira, arrazoizkoena da ikastetxeak ikasleei behar dituztenak ematea eta familiek oinarrizko jantziak libreki eskuratzea, lehen aipatutako kasuan bezala.

Horrela, ikasleak identifikatzeko helburua lortuko da eta ez zaio interes orokorrari kalterik egingo gainerako aukerek berekin dakarten prezio-igoeraren ondorioz.

- Banaketa eskusiboa vs banaketa irekia

20. Identifikatutako jantziak badira, ikastetxeak erabaki behar du nork merkaturatutako dituen: ikastetxeak berak, enpresa batek eskusiboki edo banatzaile kopuru handiago batek. Enpresa-arloko erabaki hutsa da.

Enpresa-arloko erabakia denez, erabaki hori lehia-erregulazioaren mende dago eta heziketa-eskusibidearekin duen loturak erregulazioaren aplikazioa baldintzatzen du.

21. Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, administrazioak bere handienean ordaintzen du hezkuntza-zerbitzu publikoaren zenbateko ekonomikoa. Horregatik, ezin da onartu bigarren mailako elementu baten bitartez (uniformea, adibidez) ikastetxean sartzeko eragozpenak edo diskriminazioa egotea.

Hortaz, sistema batzuk ezarri behar dira zeinek eragozten baitute ikastetxe jakin bateko uniforme-politikak eragin nabarmena izan dezala gurasoen



garrantziko erabakian —hezkuntzan, alegia— edo, hain urrunera jo gabe, jantziak arrazoirik gabe garestitu daitezela.

22. Egitate objektibo gisa egiaztatu da uniformeak eksklusiboki banatzen den kasuetan jantzien prezioak neurritz gain igotzen direla.

«IFF Research» agentziak egindako azterlan berean (arestian aipatua) honako alde hauek ikusten dira prezioei dagokienez.

«Bigarren hezkuntzako mutilentzako jertse baten prezioa, txikizkari bakar batekin egindako eksklusibotasun-akordio batetik eratorria, 12 dolar ingurukoa zen. (...)

Produktuak merkatari baten baino gehiagoren eskueran egonez gero, gurasoek dirua aurreztuko lukete. Esate baterako, eksklusiboki banatutako jertseak balio dituen 12 dolarren aldean, merkatari askok salduko balute, prezioa 7,99 dolar ingurukoa izango litzateke. Gona baten kasuan, prezioak 15,40 dolar ingurukoak dira eksklusiboki banatzen bada; baina merkatari lehiakide askoren bitartez saltzen bada, 11,45 dolar ingurukoak dira.

Lagin horrek 200 dendatako 500 prezio hartzen ditu kontuan. Estatistikak kasu gehienetan erakutsi zuen ezen merkatari bakar baten bitartez saldutako produktuak (ikastetxea izan edo ez) zenbait operadorek saldutakoak baino garestiagoak zirela.

Batez beste, ikastetxeek 676 dolarreko etekin finantzarioa jasotzen zuten urtero eksklusibotasun-akordioengatik»¹⁷.

23. Marka bat egoteak ez du ezertan eragozten ustiapena merkatari eta banatzaile bati baino gehiagori ematea, baldin eta horrekin gurasoentzako abantailak lortzen badira.

Ikastetxeak erabakitzen badu merkatari edo banatzaile bakar batek marka eksklusiboki ustiatzea, azpimarratu behar da banatzeko lizentzia eksklusiboak ematen duen ahalmena erabili behar dela prezio txikiagoak eta kalitate hobea negoziatzeko tresna gisa.

Gainera, baldintzak hiru urtean behin edo bost urtean behin negoziatu behar dira eta aurrekontu bat baino gehiago eskatu behar da, lehiari atxikitako abantailak lortzeko kontratuak egiteagatik.

24. Saihestu behar da marka erabiltzean jantzien prezioak besterik gabe igotzea.

Txileko Santiagoko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak bere iritzia eman du gai horri buruz. Auzitegi horrek uste du ezen marka modu desegokian erabiltzean eskubide industrialaren babesaren abusua gerta daitekeela, baldin eta marka

¹⁷ Ikusi IFF RESEARCH agentziaren «Supply of school uniforms» txostena, 11. zk., OFT1436.



daukatenek hura erabiltzen badute onurak lortzeko ihesbide gisa eta onurarik ematen ez badie ikasleei.

«**Hogeita hamalagarrena:** Auzitegi honen iritziz, marka komertzial batek ematen duen eskusibotasun-eskubidea egikaritzeak lehia askearen arau-haustea baino ezin du ekarri baldin eta aldentzen edo desbideratzen bada eskubide horren funtsezko eginkizunetik —hau da, jabetza industrialak berezkoa duen eskusibotasun hori markaren titularrari emateko asmo edo helburutik— eta haren xedea, aldiz, lehia askea eragozte, murriztea edo oztopatzea bada;

Hogeita hamabosgarrena: Ikastetxe baten marka-eskubidearen funtsezko helburua edo eginkizuna honetan datza: kontsumitzaileak marka-titularraren hezkuntza-zerbitzuen jatorri enpresarialaren inguruan nahas daitezela eragozte, hau da, hezkuntza-establezimendu batek ematen dituen zerbitzuak eta beste batzuek ematen dituztenak bereiztea eta, hala, marka horren titularrari bere hezkuntza-zerbitzuak merkatuan posizionatzeko egiten dituen inbertsioetatik eratorritako irabazi guztiak beregana ditzala permititzea. Ikastetxe horretako ikasleek nahitaez erabili behar dituzten bereizgarriak, bestalde, bereizi egiten dituzte hezkuntza-establezimendu horretako ikasleak eta beste hezkuntza-establezimendu batzuetakoak;

Hogeita hamaseigarrena: Hortaz, ikusi nahi bada ea ikastetxeak abusatu zuen edo ez jabetza industrialak bere izenari eta intsigniari dagokienez ematen dion babesaz —eta, horrenbestez, ea lehia askea eragotzi, murriztu edo oztopatu zuen—, zehaztu beharra dago ea ikastetxeak jabetza industrialerako duen eskubidea erabili zuen hezkuntza-establezimendu hori beste lehiakide batzuetatik babesteko, zeinek ikastetxearen izenaz edo ospeaz baliatzeko asmoa izan zezaketen, eta haren jabetzakoa den markarekin bidegabeki izendatutako produktuak saldu; edota, kontrara, ea eskubide hori erabili zuen beste eskaintzaile batzuk arauzko jantzietatik kanpo uzteko, eta hala kokapen nagusia erdietsi, mantendu edo areagotu derrigorrezko uniforme bereizgarria egiten eta merkaturatzen den merkatuan;

Berrogeita batgarrena: [...] ezin bereizizkoak dira, batetik, ikastetxearen titulartasuneko den arropa-produktuetarako marka komertzialak duen balioa eta, bestetik, dagokion izena edo logotipoa duten eta ikasleek nahitaez erabili behar dituzten jantziei dagokienez emandako hezkuntza-zerbitzuek duten berezko balioa»¹⁸;

«María Luz Rivas Morel andreak ondorioztatutako eskaera **ONARTZEA** soilik honako honetan: deklaritzen da 2005eko martxoaren 15aren ondoren, «American British School Ltda. Hezkuntza Sozietateak» 211. zenbakiko Lege Dekretuaren 3. artikulua urratu zuela, [...] eta bere izenari eta intsigniari dagokionez jabetza industrialak eman zion babesaz abusatu zuela»;

Aurrerago esan denetik ondorioztatzen da markak ikastetxea babesteko helburua duela, baina ikastetxeak ezin duela jabetza industrialaren eskubideak ematen dion babesaz abusatu. Ikastetxeek marka erregistratua arropen kostua handitzeko eta igoera beren onurarako erabiltzen badute, lehia-arazoak sortuko lirateke.

¹⁸ *Ikusi* 62/2008 Epaia, Txileko Santiagoko Lehia Askearen Defentsarako Auzitegiarena, 2008ko martxoaren 12koa. Rol C Nº 122-06.



Dagoeneko adierazi dugunez, ikastetxe jakin bat hautatzea ezin da uniformeek buruzko politiken baldintzapean egon.

Ikusi Britainia Handiko Hezkuntza Sailak eskola-uniformeek buruz 2013an egindako gida. Sailak honako hau adierazi zuen gida horretan:

«Onarpen-agintaritzek ziurtatu behar dute eskola-uniformearen edo eskola-bidaien inguruko politikek gurasoei ez dietela burutik kentzen beren seme-alabentzako leku bat eskatzeko duten asmoa. Inoiz ez luke gertatu behar eskola-uniforme bat garestiegia delako haurrek eta haien familiek nahi duten ikastetxean sartzeko edo ikastetxe horretara joateko beren burua gai ez ikustea»¹⁹.

Ildo berean, Britainia Handiko Gobernuko 'Department for Children, Schools and Families' Sailaren ustez:

«Ikastetxe batek ziurtatu beharko luke bere eskola-uniformeen inguruko politika bidezkoa eta arrazoizkoa dela. Horrek bermatu beharko luke aukeratutako uniformea eskuragarria dela eta ez duela gurasoentzako oztopo gisa jarduten»²⁰.

«Uniformeek buruzko politika bat duten ikastetxe guztiek akordioak sinatu beharko lituzkete familia bakar batek ere ez sentitzeko ezin dela ikastetxera joan uniformearen kostuak handiak direlako»

«Eskola-uniformea erostea oso eskuragarria izan beharko luke gurasoentzat eta eskolek merke erosi ahal izateko produktuak aukeratu beharko lituzkete, esate baterako supermerkatu batean edo prezio onak dituen beste edozein dendan. Ikastetxeek ahalik eta markako produktu gutxien erabili beharko lituzkete eta uniformearen elementu espezifiko garestiak saihestu beharko lituzkete; esate baterako, beroki garestiak»²¹.

Azken batean, ikastetxea ezin da enpresaren askatasunean babestu markaren izateko arrazoiak desitxuratu ez ezik, gurasoek erabakitako hezkuntza lortzeko eskubidea mugatu ere egiten duten jardunak gauzatzeko.

- Ikastetxeak *royalty* bat edo irabazien kuota bat jartzea

25. Aztertu behar den jokabideetako bat da eskusiba-eskubide bat ezartzeagatik ikastetxeak banatzailearengandik jasotzen duen *royalty* bat ezartzea da; hau da, ikastetxeak konpentsazio bat jasotzea bere markaren banaketa eskusiboa lagatzeagatik. Horren ondorioz, logikoa denez, uniformearen prezioa igo egiten da eta igoera hori uniformeak erosten dituzten familiek pairatzen dute.

¹⁹ *Ikusi* School uniform Guidance for governing bodies, school leaders, school staff and local authorities, Department for Education, September 2013). www.gov.uk/government/publications

²⁰ *Ikusi* DCSF Guidance to schools on school uniform and related policies).

²¹ *Ikusi* School uniform Guidance for governing bodies, school leaders, school staff and local authorities, Department for Education, September 2013) www.gov.uk/government/publications



Lehiaren Galiziako Kontseiluak eskola-uniformeei buruz egin duen txostenean aipatzen du jokabide hori, eta horri dagokionez, honako hau adierazten du:

«Uniformeak modu eksklusiboan banatzeko akordioek banatzaile eksklusiboaren kargurakoak diren jantzien prezioaren % 10etik % 15era bitarteko irabazia ematen diete ikastetxeei. Coruñaako hirian prezioei buruz egindako azterlan batean ikusten da banaketa eksklusiboak % 12tik % 14ra bitarte garestitzen duela piezen prezioa. Horrenbestez, ondoriozta daiteke ikastetxeak lortzen duen irabaziaren eta familiek ordaintzen dituzten uniformeen artean zuzeneko harremana dagoela. Beste era batera esanda, ikastetxe batek konpentsazio baten truke banatzaile bati bakarrik lagatzen dionean, banatzaileak konpentsazio hori produktuaren prezioan sartzen du eta gurasoek ordaintzen dute eksklusibotasunek dakarten gainkostua»²².

Ildo berean, «Office Fair Tradek» 2006an egindako azterlan batek honako hau gogorarazten du:

«Prezio handienak eksklusibotasuna edukitzeko sinatutako akordioek ikastetxeentzat ekartzen dituzten irabaziengatik agertzen dira orokorrean»²³.

Txileko Santiagoko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ere kritikatu du jardun hori ikastetxeak erregistratuta zeukan marka bat eksklusibotasunean lagatzeagatik royalty bat jasotzen duen ikastetxe bat zehatu duen kasu batean. Auzitegiak uste du ez dagoela inolako arrazoirik gurasoei gainkostuak egozteko:

«**Berrogeita laugarrena:** Horrenbestez, ez da bidezkoa ikastetxeak *royalty* bat edo prezio bat kobratzea dagozkion arauzko bereizgarriak erabiltzeagatik, ordainketa horrek ez baitu ezarpen berak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuak ez diren edo haietatik bereiz daitezkeen beste ondasun edo zerbitzu batzuk ordaintzen;

Berrogeita zazpigarrena: [...] ikasleek jantzi horiek erabiltzeko betebeharra eta eskubidea dute, beren gurasoek ikastetxearekin sinatzen duten kontratuaren arabera, eta kontzeptu horrengatik ez dute kopuru gehigarriak ordaindu behar zuzenean edo zeharka

Berrogeita zortzigarrena: Beraz, oinarrietan aurreikusita dagoen *royalty* bat eskatzea eta lizitazioetarako deialdia bera ez zeuden ikastetxearen jabetza industrialerako eskubidean babestuta ikastetxeko ikasleek nahitaez erabili behar zituzten bereizgarriak dagokienez»²⁴

26. Aurreko kasu guztietatik ondorioztatu behar da ez dela arrazoizkoa ikastetxeek aberaste bat lortzea, batez ere uniformearen erostea derrigorrezkoa den kasuan.

²² Lehiaren Galiziako Kontseiluaren Eskola Uniformeei buruzko txostena, 2014. www.consellogalegodacompetencia.es

²³ *Ikusi* IFF RESEARCH agentziaren «Supply of school uniforms» txostena, 11. zk., OFT1436.

²⁴ *Ikusi* 62/2008 Epaia, Txileko Santiagoko Lehia Askearen Defentsarako Auzitegiarena, 2008ko martxoaren 12koa. Rol C N° 122-06.



27. Gizarteak ez du pentsatu behar ikastetxeek negozio handi bat egiten dutela eskola-uniformeekin, ondorio alarmista hori ez datorrelako bat kasu gehienek errealitatearekin.

Ikastetxeak lortutako irabazia eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxeak egiten dituen beste gastu batzuk estaltzeko erabiltzeak, kasu batzuetan argudiatu den bezala, ez du azterketa honen ondorioa aldatzen.

Ikasle guztiek ez dute eskolaz kanpoko jarduera horietaz gozaten, eta, horregatik, erabaki hau diskriminatzailea izango litzateke abantaila batez gozaten ez dutenentzat, baina nahi gabe ordaintzen jarduten dutenentzat.

- Lehiak izan ditzakeen murrizketak, jardun horietatik eratorritakoak

. Lehiatzearen aurkako akordioak izatea

28. Lehiaren Defentsako Legearen 1. artikulua²⁵ debekatu egiten ditu xede edo ondorio gisa merkatuko lehiari eragiten duten enpresen arteko akordioak. Tratamendu desberdina dute akordio horizontalek eta bertikalek.

Eskola-jantziak egiteko, banatzeko eta merkaturatzeko prozesuan esku hartzen duten hainbat operadoreen arteko akordioak, beraz, sar daitezke debeku horretan, baldin eta eskumena murrizten badute eta ondorio negatiboak sortzen badituzte.

Esate baterako, banatzaile edo merkaturatzaile desberdinen arteko akordio bat (kasu honetan ikastetxeak ere sartzen dira), arropen gutxieneko prezioak ezartzen dituen, zehazki debekatuko luke lehiaren araudiak.

Derrigorrezko uniforme bat banatzeko, ikastetxearen, fabrikatzailearen eta banatzailearen artean sinatutako akordio bat ere debekatu egingo luke arau horrek, baldin eta akordio horrek alderdientzat soilik sortzen baditu abantailak eta hirugarrenak kaltetzen baditu²⁶.

Ikastetxe baten eta fabrikatzaile baten arteko akordio batek, banatzaileen bitarteko salmenta-sistema bat ezartzen duenak, banaketarako beharrezko

²⁵ *Ikusi* Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero beste lege hauek aldatua: 39/2010 Legeak, abenduaren 22koak (BOE-A-2010-19703); 2/2011 Legeak, martxoaren 4koak (BOE-A-2011-4117), eta 3/2013 Legeak, ekainaren 4koak (BOE-A-2013-5940). Testu bateratua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

²⁶ Batzordearen 2010eko apirilaren 20ko 330/2010 zenbakiko Erregelamenduak salbuetsi egiten du akordio bertikalen debekua hainbat baldintza betez, akordio horien iraupena bost urtetik beherakoa bada eta erreferentziazko merkatuan parte hartzen duten enpresen kuotak % 30etik beherakoak badira. Nolanahi ere, Erregelamenduak honako hau ezartzen du: «Erregelamendu honen arabera, **ez dute salbuetsita geratu behar** lehia murriztu dezaketen eta **kontsumitzaileak kaltetu ditzaketen** edo efizientzia ekonomikoaren hobekuntzaren ondorioak lortzeko ezinbestekoak ez diren akordio bertikalek».



baldintza proportzionalak ezarri behar ditu eta baldintza horiek diskriminaziorik gabe aplikatu behar dizkie banatzaile guztiei.

Ikastetxe baten, fabrikatzaile baten eta banatzaile baten arteko akordio bat zuzenbidearekin bat etorriko litzateke. Banatzaile horrek, nolanahi ere, bermatu beharko du eskatutako jantziak behar diren neurri guztietan izango dituela eskuragarri ikasturteak irauten duen egunetan.

Banatzaile berri batek eskatzen badu, lehenengo banatzailearekin lehiatuz, jantzi berak eskaintzea, ikastetxeak eta fabrikatzaileek ezarritako eskakizunak beharrezkoak, proportzionalak eta lehenengo banatzaileari eskatzen zaizkionaren berdinak izango dira berriro ere.

. Egon litekeen nagusitasun-posizioko abusua

29. Marka erregistratu bat dagoenean, marka hori erregistratzen duena da marka hori ustiatzeko titularra, eta, horregatik, denda jakin batek bakarrik merkatura dezan erabakitzeko aukera du. Marka erregistraturik ez badago ere, banaketa eskusiboko kontratuak proposa daitezke eta bi kasuetan azter daiteke jokabide hori Lehiaren Defentsako Legearen 2. artikulua barnean, nagusitasun-posizioko abusuari buruzkoan, sartzen den.

30. Ulertzen da operadore batek merkatu batean **nagusitasun-posizioa** duela merkatu horretan modu independentean jardun dezakeenean, bere lehiakideak, hornitzaileak eta bezeroak kontuan izan gabe²⁷.

Ikastetxe jakin bateko eskoletara joateko uniforme jakin bat eskatzeak eragiten du produktu horren ordez beste edozein jantzi erabili ezin izatea²⁸.

«Auzitegi honek uste du autoak eztabaidatzeko ondorioetarako merkatu garrantzitsua eskola-komunitate jakin baterako eskola-uniformeak banatzeko merkatua dela». (...)

²⁷ «Operadore ekonomiko batek merkatu jakin batean duen nagusitasun-posizioak adierazten du operadore horrek gaitasuna duela produktuaren prezioa edo beste edozein ezaugarri probetxuz aldatzeko. Operadore batek gaitasun hori izatea zirkunstantzia batzuetatik onura lortzearen mende egongo da. Onura horiek merkatuan boterea eta independentzia izatea izango lirateke, eta behar adinakoak izango dira operadoreak bere jokabideak hartu ahal izateko lehiakideek edo erabiltzaileek izan ditzaketan erreakzioak kontuan izan gabe, eta, era horretan, gai izango da ondasunaren edo zerbitzuaren prezioa edo bestelako ezaugarriak bere probetxurako aldatzeko»

Besteak beste, Auzitegi Nazionalaren 366/2016 zenbakiko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 6. Atala, 2016ko irailaren 29ko 203/2012 Gom., 465/99 espedientea, gaia: *Ikus-entzunezkoen Jabetza Intelektuala*.

²⁸ Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ebazpenak (SA/CAN/0010/10 espedientea, gaia: *Kanarietako Uniformeak*, 2011ko irailaren 1ekoa) kasu honetan merkatuari buruz erabili zuen definizioa hemen jasotakoa baino zabalagoa da.



«Aurrekoa kontuan hartuta, argi dago uniforme horien hartzaileak eta uniforme horientatik azkenean ordaindu behar dutenek eskaera gatibua egiten dutela, eta, litekeena da lehiarako eskubidearen aurkakoak diren abusuzko jardunak egitea, hezkuntza-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak mugitzeko oztopo argiak baitaude»²⁹.

Eskola-uniforme bat modu eskusiboan merkaturatu behar duen establezimenduak, beraz, erreferentziazko merkatuaren kuotaren % 100a izango du. Nagusitasun-posizioa edukitzeagatik, berez, ez da inolako arau-hausterik egiten. Baina arau-haustea izan daiteke, ordea, nagusitasun-posizioaz abusatzea³⁰.

31. Derrigorrezko uniforme osatzen duten elementuei buruzko jabetza industrialak nagusitasuna ematen du erreferentziazko merkatuan, baina ez du legezko ondorio sortzen, nagusitasunaren abusua badago izan ezik.

Gehiegizko prozesuak ezartzea abusutzat har liteke³¹. Operadore nagusiari ezohiko irabazi-marjina etengabe lortzea ahalbidetzen dietenak (lehiabaldintzetan lortuko liratekeenak baino handiagoak) hartu dira gehiegizko prezioztat³².

Prezioen igoerak ondorio kaltegarriagoa eragiten die erosteko ahalmen urria duten familiei, eta, berez, diskriminatzeko elementu bat sortzen du arrazoi ekonomiko hutsengatik.

Dauden desberdintasunak gorabehera, jabetza industrialaren eskubideek babesten dituzten derrigorrezko jantziak dauden kasuetan –ikastetxe publikoetan edo itunduetan–, jantzi horiek merkaturatu nahi dituzten enpresek beroriek eskuratzeko eduki beharko luketen modua eta funtsezko azpiegiturak dituzten enpresa nagusiei eskatzen zaien modua berdinak izan beharko lukete. (hau da, ez da baldintzarik gabekoa eta doakoa izango, baina arrazoizko kontraprestazioak izango ditu).

²⁹ Txileko Santiagoko Lehiaren Defentsako Auzitegiak 2005eko uztailaren 6an emandako epaiaren Zazpigarren Kontuan Hartzekoa.

³⁰ Lehiaren Defentsako Auzitegiak 2004ko uztailaren 7an emandako Ebazpena, 552/02 espedientea, gaia: *Endesa Generación*.

³¹ *Ikusi* Auzitegi Gorenaren 2003ko maiatzaren 8ko Epaia, gaia: *Unión Española de Explosivos* (2003/4209 EJ). 4495/1998 kasazio-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Sala.

³² Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak honela definitu du gehiegizko prezioa kontzeptua, ustiapen-abusuaren kategoriakoa den aldetik, General Motos Continental SVC epaian (Europako Erkidegoetako Batzordea): gehiegizko prezioa eskaintzen den produktuaren balio ekonomikoarekin alderatuta. *United Brands, non Europar Batasuneko Justizia Auzitegia eta Britainiako lehiaren agintaritzak 2011ko martxoaren 30ean hartutako erabakia*; gaia: *Napp*



Era berean, abusutzat har liteke hornitzeko egon litekeen ukoa (kasu honetan, arropetan jartzen diren intsignien marka edo uniformearen diseinuarena).

«[...] eskubide horiek ematen duten babes bereziak (ondasun jakin bati buruzko legezko monopolio sorta bat) eskatzen du testuinguru ekonomikoari buruzko haztapan zehatza egitea eta testuinguru horretan eskatuko litzateke haztapan hori lehiakideei helaraztea.

Bada, nagusitasun-posizioaren abusuarekiko eta, bereziki, kontratatze ukoarekiko komunak diren baldintzez gain, kasu honetan eragotzi behar da jabetza intelektualaren eskubideek babesten duten ondasun bat lagatzeko ukoak ondasuna funtsezko inputa duen merkatu bat garatzea kontsumitzaileen kaltetan»³³.

Markaren babesik ez duen hornidura bat ukatzeak ere lehia murriztea ekar lezake beharrezkoak diren arrazoi gardenen, objektiboen eta diskriminatzaileak ez diren arrazoiaren bitartez justifikaziorik lortzen ez badu.

4. Produktu jakin bat edo eskola-materialeko produktuen marka jakin bat (ordenagailu eramangarria, tableta eta abar) erostera behartzea eta/edo leku jakin batean erostera behartzea

32. Ezinbestekoa da ikastetxeetako ikasgeletan teknologia berriak erabiltzea, baina ikasle bakoitzak ordenagailu bat erosi edo alokatu dezan eskatzea premiaren, proportzionaltasunaren eta diskriminazioaren ezetik begiratuta aztertu behar du ikastetxeak.

Ziurtatu behar da baliabide horiek –familiek ahalegin ekonomikoa egitea eskatzen dutenak– derrigorrezkoak direla hezkuntza-maila bakoitzean jartzen diren ikaskuntza-gaitasun jakin batzuk lortzeko, baliabide horiek diskriminatzeko elementu ez bihurtzeko arrazoi ekonomikoengatik soilik.

33. Kasu askotan, ikastetxeak marka jakin bat ezartzen du ikasleek erabili behar duten eskola-materialean. Batzuetan, betiko marka bat izaten da, nolabaiteko konfiantza-maila edo kalitate-maila duela ziurtatzen duelako.

Jardun horrek, berez, eragiten du beste arrazoi batzuegatik (arrazoi pertsonalak barne) eskuragarriagoak edo komenigarriagoak diren eta ikasleari zerbitzu bera emango dioten beste ordezeko iturri batzuetara jo ahal izatea.

Ezinbestekoa da ikasleak egokitzat hartzen duen produktua aukeratzeko duen askatasuna errespetatzea ikastetxeak, betiere produktu horrek helburu beretarako balio badu.

³³ DORRONSORO, Carmen, «Artículo 2. Abuso de posición dominante», in ODRIÓZOLA, Miguel, eta IRISARRY, Belén, *Derecho español de la competencia. 15/2007 Legeari, 261/2008 Errege Dekretuari eta 1/2002 Legeari egindako iruzkinak*, I. liburukia, Bosch, 2008, 178. or.



Ikastetxe batek proposatu du marka jakin bateko ordenagailu bat erosteko **aukera dagoela**, eta, horretarako, aparatu kopuru jakin bat negoziatzeagatik lortzen den deskontua eskaini die ikasleei. Jokabide horrek ez du inolako arazorik sortzen lehiaren ikuspegitik.

Ikastetxe batek **eskatu du** marka jakin bateko ordenagailua erostea, baina softwarearen lizentziak eta ordenagailua eramateko poltsa erostera ere behartu ditu. Litekeena da ikasle batzuek ezaugarri baliokideak dituzten ordenagailuak edo erabili ahal izateko lizentziak izatea eta ez dute horrelakorik erosi beharrik. Litekeena da hainbat arrazoi direla medio ikasle batzuek erosteko erraztasunak izatea eta produktu horiek baldintza onuragarriagoetan erosteko aukera izatea. Ezein kasutan ezin da arrazoizkotzat hartu ikastetxe baten ezarpena. Zaila da irudikatzea ikastetxe batek materiala garraiatzeko poltsa jakin bat erostera behartzeko hartzen duen erabakia justifikatzeko arrazoia zein den.

34. Ikastetxeak azter dezake ikasleak materiala ikastetxearen bitartez eskuratzeko aukera *rappelez* baliatuz, kostua merkeagoa izateko familientzat, edo bermeari eta mantentze-lanei dagokienez partikularrak lortu ezin izango lituzkeen aldeko baldintzak negoziatzen dira.

Nolanahi ere, hori aukera bat izango da, inoiz ez ezarpen bat.

Ondorioak

LEHENENA: Lehiaren Agintaritzek –nazionalek eta nazioartekoek– behar adina egiaztatu dute eskola-uniformeen eta eskola-materialen banaketa ez-esklusiboak hobekuntzak ekartzen dituela produktu horien prezioan.

BIGARRENA: Ikastetxeen jarduerak ez du kaltetu behar familiek produktuen merkaturatzaileei buruz (ikastetxea izan daiteke horietako bat) eta produktuei buruz aukeratzeko duten gaitasuna.

Ikastetxeak bere identifikazio-zeinuak erregistratzen baditu, banaketa eksklusiboa izan daiteke, betiere jabetza industrialaren eskubidea ez bada modu desegokian erabiltzen bere helburu naturalaren aurkakoa ez den emaitza bat lortzeko. Bestela, Lehiaren Defentsako Legearen 1. eta 2. artikuluetan sar daitezkeen jokabideak egitean eror liteke.

HIRUGARRENA: Arropen eta materialen beharrezko baldintzak aurretik ezartzeak eta familiek ikastetxeak gomendatutakoak edo beste baliokide batzuk eskuratzeko aukera izateak abantailak ematen dizkie familiei eta, horrenbestez, interes orokorrari.



LAUGARRENA: Ikastetxeek erosteko ahalmena erabil dezakete, betiere ikasle guztien onurarako bada.

Onura hori areagotu egiten da liburuen kasuan; izan ere, kasu horretan, ikastetxeak prezioa % 15 jaitsi dezake, beherapen horiek, ulertezina bada ere, Legeak argitalpen-merkatuan gainerako operadoreei ahalbidetzen dizkien beherapenak baino handiagoak dira.



Jardunbide egokien dekalogo

LEHENA Materialaren erabilerari (zentzu zabalean edozein produktu edo lizentzia sartuta) edo uniformeari (kirol-arropa edo beste edozein motatako jantziak barne) buruzko erabakietan, lehentasuna eman behar zaio ikasleen eta haien familien onurari.

Hezkuntza zerbitzu publiko bat da eta zerbitzu hori benetan ematea eragozten duen edozein oztopok sistemak porrot egitea eragiten du.

Prezio txikienek errazten dute guztiek sarbidea izatea diru publikoarekin finantzatzen den hezkuntzan.

Produktu horien kostua ezin da familiek beren seme-alaben ikastetxea aukeratzeko garaian pizgarria kenduko dien elementu bat izan, batez ere ikastetxe publikoen edo itunduen kasuan.

Bermatu beharko litzateke uniformeei edo materialei buruz erabiltzen den politika arrazoizkoa dela eta ikastetxean sartzeko oztopo bat ez dela bermatu behar da.

BIGARRENA Ez saldu eskola-materiala modu eksklusiboan ikastetxearen bulegoetan.

Ikastetxea materiala eta uniformeak eskatzeko beste aukera bat gehiago besterik ez da izango, baina ez aukera bakarra.

HIRUGARRENA Erabili negoziatzeko duzun ahalmena deskontuak eta beste hobekuntza batzuk bilatzeko, bai eskola-materialari dagokionez, bai uniformeei dagokienez, eta ziurtatu abantaila horiek ikasleen onurarako direla.

LAUGARRENA Ez ezarri arropen edo eskola-materialaren marka jakin bat, eta ez baztertu egon litezkeen beste aukera batzuk. Helburu bera betez, egon litezkeen beste aukera batzuek prezio eskuragarriagoak izan ditzakete edo errespetatu behar diren beste arrazoi batzuk direla medio onuragarriagoak izan daitezke.

Ez ezarri marka eta prezio zehaztu bat duen produktu jakin bat (tableta, ordenagailua, lizentziak, janzkiak eta abar). Eman erreferentziazko eredu bat edo eskatzen diren ezaugarriak, baina horien barnean, ahalbidetu modu askean eskuratu ahal izatea.



Ikastetxeak beti eskaini ahal izango du, aukera gisa, ikastetxearen bitartez erostea, baina ez du inoiz horretara behartuko. Ikusi ahal izan da ikastetxeetan soilik saltzen diren produktuen prezioak handiagoak izaten direla.

BOSGARRENA Ez erabili jabetza industrialaren eta intelektualaren legezko eskubideak erantsitako irabaziak lortzeko tresna gisa ikasle guztiek nahitaez erosi behar duten produktuari balio handiagoa jarritz.

Jantziak eta eskola-uniformeak bereizi nahi badituzu, proposatu lehiaren agintaritzek gomendatzen duten bezala, intsignia horiek modu bereizian sartzeko aukera, eta, ondoren arropen jostea.

Txosten batzuek egiaztatzen dute uniforme «ofizial» bat intsigniak josita dituen oinarrizko jantziak berak baino % 185 inguru garestiagoa dela.

SEIGARRENA Jakinarazi familiei eskola-uniformeei edo beste material batzuei buruzko politikan egiten den aldaketa oro, nahiz eta aldaketa oso txikia dela iruditu, gurasoek erosteko erabakia guztiaren berri izanda har dezaten uneoro.

Saiatu uniformeak edo materialak maiz ez aldatzen, aldaketa horiek ondorio handia izan baitezakete familien ekonomian.

ZAZPIGARRENA Materiala edo uniformeak banatzen dituen norbaitekin eksklusibotasun-akordioa sinatzen baduzu, bidezko lizitazio-prozesu garden bati ekin beti (bilatu, alderatu eta familien interesetarako egokiena dena hautatu). Aukera hori familientzat deskontu garrantzitsuak lortzeko justifikatu beharko luke beti.

Hainbat azterlanek egiaztatzen dute ikastetxe bakar batean saltzea hainbat banatzaile daudenean baino % 12 garestiagoa dela.

ZORTZIGARRENA Balioetsi bi banatzaileko edo gehiagoko sistema bat aukeratzeak banatzaile bakar batek baino onura handiagoak emango lituzkeen. Egindako azterlanetatik ondorioztatzen da uniforme ofizialetan prezioaren aldea % 5koa dela hainbat banatzailek esku hartzen dutenean, eta % 40koa oinarrizko arropetan. Alde hori areagotu egiten da banatzaile kopurua handiagoa denean.

BEDERATZIGARRENA Egin lizitazio lehiakorrak aldizka, gutxienez hiru urtean behin edo bost urtean behin.

Materiala produzitzen edo banatzen duen konpainiaz aldatzeak ez du esan nahi uniformea aldatu behar denik, eta, era horretan, familiek ez dute uniforme berri bat erosi beharko enpresaz aldatzean.



HAMARGARRENA Jakinarazi gurasoei zer neurri hartu diren prezioak gehiegizkoak izan ez daitezen bermatzeko. Jakinarazi familiei, materiala edo uniformeak erosten dutenean, zer abantaila ekonomiko sortzen diren erabilitako hautaketa-prozesuaren ondorioz.